

Maileguaren eskritura honako Notarioaren
aurrean egiletsi da:

.....
.....

Hurrengoaren protokolorako:

.....

Honako egunean: UUUU/HH/EE.

OHIKO ETXEBIZITZA EROSTeko HIPOTEKA BERMEDUN MAILEGUAREN ORDAINSARIA,
PERTSONA FISIKOAREN OHIKO ETXEBIZITZAREN BERMEAREKIN,

HONI ESLEITUTA:

OHIKO ETXEBIZITZA EROSTeko ASMOZ

ZENBATEKOA MAILEGU zk.

MAILEGUAREN ERABILGARRITASUNA:

-"Aurre-hipoteka" sistemarekin: IZENPETZEAN

"Aurre-hipoteka" sistemarik gabe: IZENPETZEAN

Bankuko kontuan ordainduta

EPEA; 30 URTE

KUOTEN MUGAEGUNA: HILAREN 3. EGUNEAN

Maileguaren epe osoa, ezaldia (halakorik badago) eta Hasierako interes-tasaren araberako aldia luzatuko dira (hilabete bat baino gutxiago) kuoten hurrengo mugaeguneraino.

AMORTIZAZIOA: hilero ordaintzeko 360 kuotatan kapitala eta interesak barne, frantses amortizazio-sistemaren arabera kalkulatuta, aldi bakoitzean dagokion tasan. Kuota horietako bakoitza, %1,35eko tasan kalkulatuta, 615,21 eurokoak dira.

INTERES ARRUNTAK: (euribor 1 aur.hil. pack estandarraren hobaria) 12 hilabetez urteko % 1,35 nominala. Gainerakoa, muga-egunera arte, aldian-aldian —sei hilabete behin— aldatuko da. Aldaketak zehazteko erreferentziako interes-tasa: BOEn argitaratutako urtebeterako EURIBORRA, alda keta egin aurreko ondo-ondoko hilabete naturalari dagokiona, +% 1,60 puntu

Aipaturiko erreferentzia-tasa desagertuko balitz, Espainiako ERAKUNDEEN HMEI (irph) + 1,60 puntu erabiliko litzateke ordezeko interes-tasatzat.

Erreferentziako tasa hori ere argitaratuko ez balitz, aldaketaren aurreko bigarren hila hartuko da erreferentzia gisa, aurreko tasarekin egin bezala, eta lehen aldiz hitzartutako erreferentziako tasarako adierazitako diferentzialari 1,5 puntu gehituko zaio.

Epigrafe honen hasieran aipaturiko diferentziala 0,4 puntutan murriztuko da, baldin eta honako A eta B baldintza hauek aldi berean betetzen badira:

A) Inoren konturako diru-sarrerak dituzten mailegu-hartzaileek, interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, Kutxabanken helbideratuta izatea nomina, pentsioa edo langabezia-prestazioa. Edota, bestela, inoren konturako diru-sarrerarik ez duten mailegu-hartzaileen kasuan, baldintza bikoitz hau betetzea: batetik, interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan mailegu-hartzailearen aurrezki eta ageriko kontuen batez besteko zenbatekoa 2.000,00 eurokoa edo handiagoa izatea eta, bestetik, mailegu-hartzaileak epealdi horretan bertan Kutxabank SAn helbideratuta edukitzea langile autonomoen ordainagiriak edo Gizarte Segurantzaren kuotak.

B) Interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe: mailegu-hartzaileetako bat, gutxienez, indarrean dagoen Kutxabank SAn kreditu- edo zordunketa-txartel baten titularra izatea, eta maileguaren titular guztiek aldi horretan bertan saltokietan egindako eta indarreko Kutxabank SAn kreditu- edo zordunketa-txartelen bidez ordaindutako kontsumo bateratuak 1.200,00 eurokoak edo handiagoak izatea.

Adierazi berri ditugun A eta B baldintzak betetzen badira, epigrafe honen hasieran aipaturiko diferentziala are gehiago murriztu ahal izango da, gehienezko murrizketaraino —0,75— iritsi arte, aurreko atalean adierazitako murrizketa ere kontuan hartuta.

Hala, epigrafe honen hasieran aipaturiko diferentziala 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako aseguruetako baten titularra bada: Kutxabank Etxe Asegurua, Kutxabank Etxe Aseguru Estra edota Kutxabank Aseguradora Cia de Seguros y Reaseguros SAUren bidez kontratatutako Kutxabank Etxe Aseguru Babestua.

Epigrafe honen hasieran aipaturiko diferentziala 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako aseguruetako baten titularra bada: Kutxabank Bizitza Asegurua, Kutxabank Urrezko Bizitza Asegurua, Kutxabank Plus Bizitza Asegurua edota Kutxabank Aseguradora Cia de Seguros y Reaseguros SAUren bidez kontratatutako Maileguak Amortizatzeko Kutxabank Aseguru Babestua. Maileguaren titularrek kontratatutako aseguru guztiak batuta, gutxienez 150.000,00 euro (edota maileguaren nominalaren % 100, baldin eta zenbatekoa txikiagoa izango balitz) izan beharko dituzte aseguratuta.

Hala, epigrafe honen hasieran aipaturiko diferentziala 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako aseguruetako baten titularra bada: Kutxabank Etxe Asegurua, Kutxabank Etxe Aseguru Estra edota Kutxabank Aseguradora Cia de Seguros y Reaseguros SAUren bidez kontratatutako Kutxabank Etxe Aseguru Babestua.

Hala, epigrafe honen hasieran aipaturiko diferentziala 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako aseguruetako baten titularra bada: Kutxabank Etxe Asegurua, Kutxabank Etxe Aseguru Estra edota Kutxabank Aseguradora Cia de Seguros y Reaseguros SAUren bidez kontratatutako Kutxabank Etxe Aseguru Babestua.

Epigrafe honen hasieran aipaturiko diferentziala 0,1 puntutan murriztuko da, baldin eta interes-tasa aldatu aurreko hamabi hilabeteetan, eta etenik gabe, mailegu-hartzaileetako bat honako hauetakoren baten titularra bada: a) pentsio-plan indibidual baten titularra (Kutxabank SA erakunde merkaturatzaile eta gordailuzaina izanik, eta Kutxabank Vida y Pensiones Cía. de Seguros y Reaseguros SAU sozietatea gestorea izanik); b) edo Baskepensiones BGA Eren aurreikuspen-plan indibidual baten titularra (Kutxabank SA bazkide sustatzailea izanik). Bi kasuetan maileguaren titular guztiek aipaturiko aldiaren eta aipaturiko planetara egindako ekarpenek, denak bilduta, 1.000,00 eurokoak edo handiagoak izan beharko dute, hala badagokio, zenbateko horri kenduta aldi horretan berreskuratutako zenbatekoak, jasotako prestazio edo aparteko likidezia-egoerak, eta kitatu edo mobilizatutako eskubide ekonomiko edo bateratuak.

Hitzartu berri dena kontuan hartuta ere, aurreko ataletan aipaturiko murrizketa bat bera ere ez da ezarriko baldin eta interes-tasa aldatzeko egunean edota baldintzak betetzen direla berrikusteko egunean, aipaturiko maileguan mugaeguneratu eta ordaindu gabeko zenbatekorik badago, ordainketa-egoera sortu eta 90 eguneko antzinatasunarekin.

Aipatu berri ditugun interes-tasaren murrizketetako bakoitza ezartzeari utziko zaio murrizketa ezartzeko baldintzak betetzeari utzi ondoren, interes-tasa edo baldintzak betetzen direla berrikusteko hurrengo datan. Baldintzak berriro betetz gero, ordea, hurrengo berrikusketa-datan berriro ere ezarriko dira.

Adierazi direnez gain, kuota mugaeguneratzen den lehen egunean lehenengo interes-kuota ezarriko da, bertan jasotzeko mailegua formalizatu den egunetik eta egun horretara bitartean sortutako interesak.

INTERESAK LIKIDATZEKO ALDIZKAKOTASUNA: HILEAN BEHIN.

IREKIERA KOMISIOA: 455,08 euro, eskritura sinatzean ordaindu beharrekoak.

AZTERKETA KOMISIOA: 0,00 euro, eskritura sinatzean ordaindu beharrekoak.

ATZERA EGITEAGATIKO KONPENTSAZIOA:

AMORTIZAZIO PARTZIALA: % 0,5 lehen bost urteetan eta % 0,25 gainerako aldiaren.

% 20 salbuetsita.

AMORTIZAZIOA GUZTIRA: % 0,5 lehen bost urteetan eta % 0,25 gainerako aldiaren.

MUGAEGUNERATUTAKO ZORPEKO EGOERAK ERREKLAMATZEAGATIKO KOMISIOA: ez ordaintzeren bat gertatzen den bakoitzean, eta bezeroari egoera erregulatzeko egindako gestio pertsonalizatua burutu ondoren (jarduketa hori egin dela ziurtatzeko moduan jasota

geratuko da), mugaeguneratutako zorpeko egoerak erreklamatzegatiko komisio bat sortuko da, alderdi zordunaren kontuan likidatzekoa. Kontratu hau sinatu den egunean, komisio hori 30,00 eurokoa da.

URTEKO TASA BALIOKIDEA: % 1,66: "interes-tasaren berrikusketekin batera aldatuko da" (Espainiako Bankuaren araudiaren arabera).

BERANDUTZE INTERESAK: unean-unean indarrean dagoen diruaren legezko interesa 3rekin biderkatzearen pareko interes nominala. Informazio-ondorioetarako, berariaz adierazi nahi da eskritura honen egunean eta aldatzeko aukerari kalterik eragin gabe, berandutzearen interes-tasa %9koa dela. (Ez da kapitalizatzen).

KALTEEN ASEGURUAREN ZENBATEKOA: 115.658,82 euro.

MAILEGUAREN BERMEA:

HIP. ERANTZ.: Interes arruntak: 18.203,24 euro. Berandutze-interesak: 54.609,72 euro. Kostu eta gastuak: 9.101,62 euro. Lotutako kredituak: 1.820,32 euro. Gehieneko interes arrunta hipoteka-ondorioetarako: % 10

ENKANTERAKO ZENBATEKOA: 194.400,00 euro. 16.500,00 euro eta 5.202,00 €.

AURREKO ERREGISTRO TITULARRA.

BILBO, 2016ko apirilaren 7a.